

## ESTILOAREN GARRANTZIA

**K**OMENI da noizean behin mugitzen garen mundu honetako balioak birpasatzea. Lehiaketetan ez bezala, mendizaleak ez dauka oinarrian bere praktika arautzen duen lege formalik. Ezin da debekurik edo pertsekuziorik ezarri. Badaude, ordea, printzipio batzuk, mendizaleen kolektiboak onartzen dituen portaera-arau batzuk, maiz inplizitoak direnak. 2002an UIAAk hitzarturiko Tiroleko Adierazpenean eman ziren aditzera eta guztiz indarrean ditugu.

Alpinismo batzordeari "mendia egiteko estiloa" izeneko 8. araua birpasatzeko eskatu zaio, adierazpen ausart batez hasten baitzen: "Esperientziaren kalitateak eta arazoak gainditzeko moduak garrantzi handiagoa dute gainditzeko berak baino." Baita azkeneko puntuan sakontzeko ere, bertan soka finkoak, botilaturiko oxigenoa eta errendimendua hobetzeko onarturik ez dauden drogen erabilera gaitzesten baitzen.

Himalayan zabalik dugu oxigenoa erabiltzearen balioaren gaineko eztabaida. Estilo onak, onenak edo idealak, oxigenoa sendatze-erabilerarako uztea ekartzen du. Antzeko zerbaitek gertatzen da drogekin. Espedizioetan ez da dopaiaren kontrako UIAAren araurik aplikatzen, baina gaitzetsi egiten da erreferentziako zerrendan ageri diren drogak non edo han erabiltzea, alpinisten osasuna jagon edo errekupeartzeko helburu terapeutikoekin ez bada.

Eta halako laguntzak behar dituztenek zer egin dezakete? Jende gutxiak dauka bizitzaz osotasunean gozatzeko eskubidea, alpinismoan jardutea barne. Dagoneneko Everestera lagunduta igo dute, adibidez, zenbait itsuk edo zangorik gabeko pertsonak. FEMADek, Fundación Española de Montañismo y Deporte Adaptado delakoak, honako egitasmo hau iragartzen du: "7 Gailur 7

Sumendi guztiek eta guztientzat", ahalmen fisiko urrikoak ere munduko lekurik garaienetara heltzea ahalbidetuko duena. Zail da mugak non dauden ezartzea, baina hau beste kontu bat da eta gauzak nahasteak ez du balio.

Badago alpinismoa egiteko era garbi bat, eredu bilakatu eta aintzakotzat hartu beharrekoa. Hazten ari den etengabeko tentaldia dago, ordea, komunikabideek informazioa manipulatu, gertaeren neurria aldatu eta iritzi publikoa nahasteko, azken honek beti jotzen baitu sinplifikazioetara. Askotan ez da gezurretan aritze hutsa, baina bai oinarriko gaiak argitu ezik, balore haiek betetzen ez dituzten mitoen benerazioari hedabide ematea.

Zein urrun gelditu zaigun, adibidez, Doug Scout eta beronen lagun britainiarren muturreko alpinismoan jarduteko estiloa! Kanpoko laguntzarik gutxien erabiliz erronka zailak bilatzeko modu haren ederra. Eta zein ote da honen guztiaren abantaila? Bada, bere kasuan, Karakorumeko 1977ko ihes dramatiko hartan bizirik irteteko aukera eman ziola, Baintha Brakk (7285 m) gailurreko lehenbiziko igoaldia egin berri zutela, amaigabeko zortzi egunetan zehar zango biak puskatuta, guztiz eremu zailean, errestand mendian behera abiatuta. Zirrara garria da. Badirudi Ogroa deitu zuten mendiak "nahi bai", baina ezin izan zuela haiekin.

Ateratzen dugun ondorioa da alpinismoaren printzipio etiko hauek hedatu behar ditugula mendizaleen artean. Aurki eta masiboki egiten saiatuko gara. Eta debaterik ekartzen badu, hainbat hobe. Biziki osasungarria da hausnartzea eta gai hauen inguruan ondo pentsatutako iritziak trukatzeko. Gainera, beste adiskide batek, Joserrak, dioen bezala, amaieran zaletasuna sortzea bezain ona da oposizioa piztea.

## LA IMPORTANCIA DEL ESTILO

**D**E vez en cuando conviene repasar los valores que existen en el mundo en que nos movemos. El montañismo básicamente no tiene normas regladas a las que hay que ajustarse, como pasa en las competiciones. No se puede prohibir ni perseguir. Pero existen unos principios, unas reglas de conducta muchas veces implícitas, aceptadas por la comunidad de montañeros. Fueron expresadas en la Declaración de Tirol, que acordó la UIAA en el año 2002 y que siguen absolutamente vigentes.

Ahora se ha pedido a la Comisión de Alpinismo que revise la máxima 8ª, "El estilo de hacer montaña", que empezaba con un enunciado valiente: "La calidad de la experiencia y el modo de resolver los problemas es más importante que el hecho de resolverlos." Y que profundice en el último punto, que postulaba el no uso de cuerdas fijas, de oxígeno embotellado y de drogas no autorizadas para mejorar el rendimiento.

Está abierto el debate sobre la valoración del uso del oxígeno en el Himalaya. El buen estilo, el mejor o el ideal, implica el reservar el oxígeno para usos terapéuticos. Algo similar pasa con las drogas. En las expediciones no se aplican las normas antidopaje de la UIAA pero se desaconseja, en todo tiempo y lugar, el consumo de drogas incluidas en las listas de referencia, excepto con fines terapéuticos para preservar o restaurar la salud de los alpinistas.

¿Y los que necesitan estas ayudas, qué pueden hacer? Todo el mundo tiene derecho a una vida plena, incluyendo la práctica del alpinismo. Al Everest ya han ayudado a subir por ejemplo a ciegos y a personas sin piernas. La FEMAD, Fundación Española de Montañismo y Deporte Adaptado, anuncia el proyecto: "7 Cumbres 7 Volcanes para Todos y por Todos" que logrará que los

discapacitados físicos lleguen a los sitios más altos del mundo. Es difícil establecer dónde quedan los límites, pero esto es un asunto distinto, y no vale mezclar las cosas.

Existe un estilo limpio de hacer alpinismo, que debe ser el modelo y debe ser reconocido como tal. Hay una tentación permanente y creciente de que los medios de comunicación manipulen la información, desproporcionen las actuaciones y confundan a la opinión pública, que siempre tenderá a la simplificación. Muchas veces no es decir mentiras, pero sí no aclarar los puntos esenciales, induciendo así a la veneración de mitos que no cumplen aquellos valores.

¡Qué lejos queda por ejemplo el estilo de hacer alpinismo extremo de Doug Scout y sus amigos británicos! Esa forma de buscar retos difíciles, utilizando un mínimo de recursos externos. ¿Y qué ventaja tiene eso? Pues en su caso, que le permitió sobrevivir en aquella dramática escapada en 1977 en el Karakorum, desde la cumbre del Baintha Brakk (7285 m), cuya primera ascensión acababan de hacer, arrastrándose montaña abajo, por terreno muy difícil, durante ocho interminables días con las dos piernas rotas. Es escalofriante. Da la sensación de que la montaña, a la que llamaron el Ogro, "sí que quería", pero no pudo con ellos.

La conclusión que sacamos es que hay que divulgar entre los montañeros esos principios de la ética del alpinismo. Procuraremos hacerlo en breve y masivamente. Y si provocan debates, pues mucho mejor. Es muy positivo reflexionar e intercambiar opiniones meditadas sobre estos temas. Y además como dice otro amigo, Joserra, al final es tan bueno crear afición como crear oposición.